

Bizkaiko Segatxapelketea hilaren 28an Abadiñon, Basagurenen

11. orrialdea

Baleta Zeberion

Jaiotzez katalana dan Roser Carrés Montull jantziariak balet klasikoko eskolak emongo ditu lau urte baino gehiagoko umeentzat uda honetan Zeberioko Eskola Zaharrean. Modu dibertigarrian emongo dira eskola honeek, umeak balet klasikoagaz disfrutetan ikasi dagien.

13. orrialdea



Euskal Herriko Kantu Txapelketan Estí eta Olatz irabazle

12. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

167

2012ko garagarriaren 3a hamabostekaria
www.begitu.org

Jairik jai hile osoan


Lemoako San Inazio jaiak ipiniko deusie amaiera garagarriari, egitarau bete-beteagaz. Betagarri, Bidean Galduta, The Jeloskors, Governors, Ze Esatek eta Feiz No Mor taldeak kontzertuak emongo dabez, bariku, zapatu, domeka eta astelehen gauetan. Eta kontzertuen ostean erromeriak egongo dira Akerbeltz, Izargi, Honat eta Aiko taldeakaz. Gastronomia txapelketak, umeentzako jolasak, kirola, artisautza azokea...

Gustu guztiak asetzeko jai egitaraua prestatu dabe Lemoan.

Ondo pasetako orduan lemoztarrak errekeari begira ipinten dira eta urteroko baltsen jaitziera dibertigarria Ibaizabaletik ez da faltauko domekan, hilak

29. Baltsak Tallerretako zubitik zubi barraino ibiliko dira.

San Inazioak baino lehen Santo Tomas, San Kristobal, Santa Marina, San Segismundo, Madalenak eta Santiagoak daukaguz auzune eta ermita inguruetan jantza batzuk egiteko. **5. orrialdea**



Lemoako San Inazio jaietako kartela.

ARRATIA

AUMek egonkortasun finantziariorako plana onartu dau



PNV eta Bilduk, Arratiako Udalen Mankomunitateko gobernu-organoko alderdi biak, egonkortasun finantziariorako plana onartu eban bagilaren 27ko Osoko Bilkuran. Holan, udalen ordainketak, hiru hilerik behinekoak izatetik, hilerokoak izatera pasauko dira. **5. orrialdea**

ARRATIA

Gorritxo komandatearen Begoña alabeari alkarrizketea erdiko orrietan

Gorritxo, Iparraldeko Ejerzitoko Infanteriako IV. Brigadako buruzagiak jaso eban Lemoax errekuiperetako agindua. Gerrea galdu eta erbestera joan zan komandantea. Argentina, Uruguai eta Txiletik pasau ostean, Mar del Platan jarri zan biziten eta han hazi zan Begoña alabea. Begoña Gorritxok erbesteko bizipenak ekarri ditu gogora, BEGRUren itaunai erantzunez. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA

Genero indarkeriaren protokoloa

Diagnostikoa egin ostean genero indarkeriari aurre egiteko protokoloa onartu dau Arratiako Udalen Mankomunitateak eta urrietan sinatzea espero dabe. Murgibek egin dau protokoloa eta Arratiako talde feministen kritikak jaso ditu. Ekarpen horreek jaso eta "ahalik eta protokolorik onena" egiteko lanean dabizala esan eban Josune Gorospe AUMren presidentea. **7. orrialdea**



KANTU HERRIKOIAK

ASTELEHENIAN
EZKONDU NINTZAN

Astelehenian ezkondu nintzan
martizenian basora,
leku txarreko egurre eginek
igaro eiten botora.

Landa ederian ezari nintzan
negarra gozoa altzora,
abadearen lapikotxia
txikerra baina gozua,
ikezginaren lapikottua
handie baina arua.

Iturria: Bitoria Artetxe Ziarrusta (Zeanuri 1914-2006).

1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larrakoetxea eta Ruper
Lekuek jasoa.

Astelehenian ezkondu nintzan

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Garagarilaren 2tik 8ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 9tik 15era

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 16tik 22ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 23tik 29ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Jürgen Lange, Clara Luja eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjuregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bilko Foru Aldarria
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Eskubideen babesa

Haro egon behar da norberaren buruaz, norberaren aberiaz. Gure etxean txiki txikitik naparrak izanda, euskalduna emondako hitza betetzen dauan persona zintzoa dala ikasi dogu, baseria apostu baten galdu ezker, ezelango dokumentu edo kontratu barik, galdutakoa txintik esan barik ordaintzen dauana. Zintzotasuna zein leialtasuna bertako persona onaren oinarriak dirala.

Ahalegin eta erresistentzian errotutako kultura baten oinordekoa nazanez, iruzur eta lapurketaren munduan bizi nazala pentsetan, bihotzak min emoten deusta. Gardentasunean sinisten dot, eskubideen babesean. Eta orain, iruzurraren munduan, neure burua biktizatzen jotzen dodanez, burruka eta erresistentziaren beharrean nago. Hitzontzikeriaz agoa beteta, non ete dago geure herria, euskeria, kultura eta euskal arima defendiduteko jatorrizko indarra? Ikaratu egiten naz gure barruko indarra geldituaz eta hiltzean ikustean. Handikerien aurrean txikitu egiten gara. Burrukearen beharrean gagoz. Norberaren burrukak, kolektiboaren burrukan eragina dauka, sasoi baten burrukalariak izanda morroiak izateari itxi geuntsan moduan.

"Politikak usteldu egiten dau", ezin dot horretan sinistu, bardin-tasun, gardentasun eta garbita-

sunean eraigitako zutabe politikoak ezin dau "tarta eta xanpainaz" ospatu ondoan jarrita dagoanari sartu deustan iruzurra. Ezinezkoa da gauzak beste modu baten egitea euskerea eta komunitatearen eredu barri baten defentsaren alde egon barik.

NATALIA MARTINEZ MANZARBEITIA

Hitz... ele... berba!

Zenbat berba! Zenbat berba biltzean dozuen!

Zenbat berba ikasi, zenbat berba irakasten dogun!

Zenbat berbaren jaube garan!

Zenbat berba sentiduten doguna esateko!

Zenbat berba sentimentuak adierazoteko eta, askotan, horretarako berba nahikorik ez!

Hamar urte honeetan egin dozu beharri esker ona adierazoteko berba egokia aukeratzea gatx egiten jaku, ordea! Hemen gagoz, papel zuriaren aurrean, mutu, berben munduan sartu guran eta ezin.

Beharbada, maitaleen moduan egin beharko dogu, izan be, fereken munduan murgildurik, laztanen hizkuntza hautatu dabe eurak. Berbarik ez, beraz, euren sentimentuak alkarri helarazoteko.

Berbarik ez!? Berbarik ez!?

Hitz... ele... berba!

Zuek, dana dala, jarraitu egizue berbaz eta berbaz, geuk be segiduko dogu eta berba horreek

leiduten, barnatzen, erabilten, irakasten, ikasten...

Eta bitartean, gura badozue, txitean-pitean laztanen bat, keinuren bat... isilean... botako deustuegu aurrera segidu daizuen, orain arte bezain animoso, berben munduan guztiz murgilduta... berbarik berba... berbaz berba... berbatik berbara.

Zorionak BEGITU!

ARRATIAKO AEK-KO IKASLE,
IRAKASLE ETA LAGUNAK

Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA



GAIZKA TOVAR

GEA Berdintasuna

Mikromatxismoak

Aske idatzi da mikromatxismoen inguruan, 1990ean Luis Boninok berbea sortu ebanetik "orain matxista deitzean ez jakien gizonetzkoen menperatze portaera ezkutua" (Bonino 2008, 94. orr.) izentatzeko.

Berba hau beti iruditu jata eztabaidagarri, gizon batzuen kontrol helburua daukan menperatzeko portaerak izentatzen ditu, baina hori ez da, ba, jarrera matxista? Zergaitik ez deitu gauza baxotxari bere izenetik? Gizonoi gatx egiten jaku (eta neure burua be sartzean dot horretan) portaera honeek daukaguzala onartutea. Horregaitik jokatze modu honeiri etiketak bilatzen deustaguz, jokaera horreek (urteetan sozializazio matxista prozesuak bizi izan ondoren barnaratutakoak) zuritzeko eta dogma horren barruan ez gagozala sentiduteko.

Orain dala urte batzuk, gizonetzko batzuk itxurea zaintzen hasi ziran, beste gizonetzko batzuek ez bezala, eta berba bat asmatu behar izan zan, "metrosexual" berbea hain zuzen, euskarri bat emoteko portaera horri eta "marikoi" edo "maritxu" moduan tratatuak ez izateko. Gizonok, errealitatea asmatu eta berrasmatu egiten dogu eta barriro be, berbak asmatuten gatx (mikromatxismoak, maskulinitate barriak, metrosexual...) gure portaerak zuritzeko eta hola onartu behar ez izateko idea matxistez kutsatuta gagozala eta besteak bezain errudunak garala.

Batzuetan gatxa izaten da

betaurreko moreak jantzea (batez be, mutilontzat) eta onartu egiten doguz lagunen komentarioak kuadrilako neskak pentsamentu bat azaldu edo defendatzeko abotsa altxatzen dabenean histerikoak dirala esanez, baina mutilen abotsak eta oihuak onartzen doguz futbol partidu baten jokaldia jokoz kanpoko izan dan ala ez eztabaidatzen dabenean.

Konturatu barik onartzen doguzan ekintza bakanak dirudie (eta konturatzen garanean, "ez da hainbesterako" edo "zeure roilo feministakaz zabiz barriro" esanda zuritzen doguz). Baina ez, ez doguz atzean ixten zapatu gaueko komentarioak ama izanbarri dan laguna etorten danean esaten deustagunean:

- Non itxi dozu umea? Umea jagoten ez dagoalako ez dala ama ona adierazoz. (Jakina, askok esango dabe txantxa bat baino ez dala izan).

Baina txantxa egiteko modua sano desbardina da ume horren aita, taberna horretara bertara, zapatu gauean, irabazle irribarraz sartzean danean:

- Lortu dozu mosu-huts itxia andrea eta umea, e?

Oso "grazioso" be bada parranda baten hurrengo eguneko komentarioak entzutea; neskarentzat:

- Zelan ipinten zaran urteten dozun baxotxean! paternalista bat; mutilarentzat, barriz:

- Parranda ederra atzokoa! ga-raile tonuan.

Orain udan, lagunai, anaiari, auzokoiari entzungo deustegu esaten eguraldi ona ikaragari gustetan jakiela iribarre konplize bategaz, euren begiradea sorbaldak tapau barik dituan edozein neskaren atzetik zuzenduten daben bitartean.

Danak daukagu mikromatxismo horreek aldatu eta aldatuarazoteko posibilitadea, ikusten dodanagaitik jarrera matxistak baino ez diran mikromatxismoak. Akaso gatxa izango da, baina gatxa be bada jokaldi bat jokoz kanpo egon dan ala ez ebaztea errepertizinoa ikusi barik.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Subelandarea



Narrasti txiki (6-10 cm) eta insektujale hau horma zaharretan edo eguzkiak ondo jotzen dauan beste hainbat lekutan ikusteko aukerea dogu uda sasoi honetan. Arratian, hormetako sugelandara eta subelanda izenakaz be ezagutzen da. Batuaz, horma-sugandila da. Beste alde batetik, leku baten gainean "subelandarak baino ez egon" esaten danean garrantzi gitxi edo balore urrikoa dala esan gura da.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea Iuzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrean beharrez, euskeraz eginez

Euskeraz Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN**ARANTZA
ETXEBARRIA
ITURRATE****Joskileak**

Joskilearen ogibidea tradizio handikoa da gurean. Horrez gainera, joskileak gure ipuin eta kantetan be ageri jakuz. Arropa barriak oso-osorik egiten dabez, eta zaharrak konpondu eta atondu. Jostorratza, haria eta titarea daukiez lagun.

Ni neu txikitan joskilearenean askotan egonekoa naz. Leku magikoa zan joskilearen tailerra, jostorratzez eta tela zatiz ez ezik, sekretu eta itxaropenez betea. Berbarako, erropa barria bertan egin ezker, hainbat bisitaxo egin behar ziran tailerrera, eta orratzakaz behin eta barriro pintxau arren, ez zan ezer sufriduten, hain zan handia ilusinoa! Gero, erropa bakotxa poz handiz gordetzen zan joskilearenean dana dalako ospakizuna heldu arte.

Gaur egun beharleku hori gainbehera joan beharrean,

neure ustez gorantza doa gure artean, bere zeresanari edo izaerari jagokonez, behinik behin. Askok ez dakigu jostorratza, haria eta titarea eskuetan hartuta zulo bat ondo tapetan, baina gurean bizi dogun egoera ekonomiko honetan, nik neuk behintzat joskilea nazala sentitzen dot ia-ia egunero.

Dirua bankuko kontu batetik bestera pasau behar izaten dot askotan, hemen zulo bat tapau eta han bestean proiektu barri bat hasteko. Joskilearen antzera, orratzagaz eta hariagaz zuloak tapau ezinik.

Eta gaur egun moda kontuakaz eta denporaldiko erropakaz pasetan dan moduan, gure bankuetan kredituak eskeintzen deuskuez merke-merke. Baina kontua da denporaldia pasetan danean erropa zaharra birziklau edo botateko aukerea daukagula, baina bankuan erositakoa ez, hori denporaldi batetik bestera armairuan geratzen da.

Besterik ezean, ikasi daigun bada jostorratzagaz, hariagaz eta titareagaz trebe izaten, erropetan altsirik dariola euki gura ez badogu.

ZERTZEAN**KEPA INTXAUSTI****1**

Bagila edo parranda berdina esatea gogorra da arratiaz gazte izatea sanantoniotan dator lenengo atakea berak zabaltan dosku udeko atea.

2

Gorputze fresko eta parranda gogoa Bedia ta Ubidean bagile badoa Igorren ta Arantzazun sardine mordoan San Juan suek berotan dosku animoa.

Gaia jarrita: "Arratiako maratoia"**3**

Gibela berde eta musturre marroia bagile aurrera doa hau da hau marroia sanpedrotan Dimeran zelango sasoi amaitu ezinik gabiz jaien maratoia.

4

Parranda bat gaurko ta beste bat biharko beti gabiz gusture ezer ez dau txarto Lemoara orduko deskantseu beharko hile bete falta da San Inaziorako.

5

Gogorra agorrilan bigarren erdie Zeani ta Areatzan dantzan izerdie beroagaz sufritan hau de aberie etxera bueltetako inder barik ie!

6

Artean andra mari ez da jai motela manga laburre jantziz sasoi itzela ia danok gogoan dekogu horrela beharren hasi arren uden gagozela.

BEGI TXINDORRA**Udan argazki lehiaketeta BEGITUN**

Krisia eta arazoak tartetxo baten ahaztu eta aisialdi, opor eta biajeen sasoi heldu jaku. Betiko moduan BEGITUN irakurleok ikusitakoa eta bizi izandakoa beste irakurleakaz konpartidutea gurako geunke eta igazko moduan, argazki lehiaketeta antolatu dogu. Saria landetxe baten astegoi baten pasetea izango da.

Argazki lehiaketaren oinarriak:

1. Parte hartzaileak: BEGITUN Aldizkaria jasoten dauan edonor.
2. Gaia: Argazkiak aurten egindako oporrekaz edota biajeakaz zerikusia izan behar dabe.
3. Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noiz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
4. Nora bialdu: Argazkiak begitu@topagunea.com helbidera bialduko dira.
5. Aurkezteko epea: 2011ko garagarilaren 4tik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztuko eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horreek diranik irabazleak.
6. Epaimahaia: BEGITUN Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
7. Epai: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epai emoteko, eta urri bigarreanean argitaratuko da argazki irabazlea aldizkari honetan.
8. Saria: Persona birentzako astegoi baten Nafarroako landetxe baten (ohea eta gosaria).
9. Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak oinarri honeek onartzen dituela esan gura dau. Animau! Zuen oporrek zein ederrak izan diran konpartiduteko eta sariren bat lortzeako aukerea izango dozue. Zuen argazkien zain gagoz! Ondo pasa oporretan!



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bizkaia
T. 94 631 30 39

Marina Urigoitia Aldekoa, 110
R.P.S. 25/06

JANDONIZ
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

LEMOA

Baltsen jaitsiera, kontzertuak eta lehiaketak saninazioetan

Lemoako herriak San Inazio jaiak ospatzen ditu hil honen amaieran. Lemoan, Arratia erreka Ibaizabalen isurtzen ditu bere urak eta jaietan ibaia ez dabe ahaztuko lemoaztarrek, bertan egiten da eta ekintza ikusgarri eta dibertigarrienetako bat: baltsen jaitsiera, hain zuzen be. Hau domekan izango da arrastiko zazpiretan.



Lemoako jaiak.

Erredakzioa

Betagarri, Bidean Galduta, The Jeloskors, Governors, Ze Esatek eta Feiz No Mor taldeak kontzertuak emongo dabenez eta erromeriak be ez dira faltauko Akerbeltz, Izargi, Honat eta Aiko taldeakaz. Zapatuan, goizaldeko 02:30ean eta 04:30ean Arratiako herrietatik pasetan diran autobusak Correosetik urtengo dira etxera bueltetako.

Gastronomia, kirola eta euskal jaiak be izango ditue beren egunak Lemoako jaietan.

Garagarriak 24, martitzena

17:30ean, futbito txapelketaren finalurrekoak. Mozorro lehiaketan parte hartzeako izen emotea, eskoletan. Rally umoristikoan parte hartzeako izen emotea, eskoletan.

Garagarriak 27, barikua

Mozorro eguna. Gaia: zirkua.

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.

19:00etan, txupina eta jaietako kartel lehiaketaren sari banaketea plazan. Ondoren, Elizondora kalejirea Sugarri fanfarreagaz. Mozorro lehiaketaren sari banaketea Elizondon.

21:00etan, kuadrilen afaria kiroldegian.

22:00etan, disko karaokea kiroldegian.

22:00etan, kontzertua The Jeloskors Elizondon.

23:30ean, kontzertua Bidean Galduta Elizondon.

01:00etan, erromeria Akerbeltzegaz Elizondon.

Garagarriak 28, zapatua

11:00etan, Lemoa Txirindulari

Elkartearen eskutik, umeentzako eta nagusientzako herriko bira bikiletaz, Gaztetxeko aparkalekutik hasita. Ondoren San Antolinera I. igoera bikiletaz eta hamaiketako ("boripanak" eta edaria).

16:30ean, eskupelota partiduak Txutxin txapelketaren finalak.

19:00etan, kuadrilen arteko "rally umoristiko". Jubiladuen tabernan hasita. Honegaz batera DJ-a Elepunto heritik zehar.

20:00etan, arrantza eta ehiza alkar-teak sardina jana eskeiniko dau Elizondon.

23:30ean, kontzertua Betagarriagaz Elizondon.

01:30ean, erromeria Izargigaz Elizondon.

05:00etan, barauskarria Elizondon.

Garagarriak 29, domekea

Gastronomia eguna

11:00etan, ume eta gazteentzako puzgarri parkea eta jolasak eskoletan.

13:30ean, paella, tortilla, gisadu eta makailao lehiaketetako lapikoen aurkezpena eskoletan. Ondoren, herri bazkaria eskoletan.

16:00etan, ume eta gazteentzako ekintzak Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, eskoletan.

16:00etan, ume eta gazteentzako tailerrak eta jolasak Zaztaparrak asti taldeak antolatuta eskoletan.

17:00etan, Mus eta Briska txapelketaren finalak.

19:00etan, baltsen jaitsiera Ibaizabaletik. Urteera Tallerretako zubian izango da eta helmuga zubi barrian.

Ondoren, Harriketarrak Gazte Asanbladak antolatuta kalejirea.

Gauean kontzertuak, Governors eta Ze Esatek.

22:30ean, 12 urte baino gutxiagokoentzako Play Back lehiaketea Elizondon.

01:00etan, 12 urte baino gehiagokoentzako Play Back lehiaketea Elizondon.

Garagarriak 30, astelehena

Kirol eguna

12:00etan, herrikoentzako XIII. Ugerketa txapelketea.

17:00etan, 15 urtetik beherakoen futbito txapelketaren finala eskoletan.

18:00etan, aerobic saioa eskoletan.

18:00etan, 15 urtetik gorakoen futbito txapelketaren 3. eta 4. postuak ebazteko partidua.

19:00etan, 15 urtetik gorakoen futbito txapelketaren finala eskoletan.

20:00etan, eskupelota finala kiroldegian.

21:00etan, padel txapelketaren finala. Partiduen ostean kopautxo parte hartzaile guztientzat.

22:00etan, kontzertua Feiz No Mor taldeagaz Elizondon.

23:30ean, erromeria Honat taldeagaz Elizondon.

Garagarriak 31, martitzena

Euskal Jaia San Inazio plazan

11:30ean, XV. Artisautza azokea Atxeta taberna ondoko plazan.

12:30ean, mezua San Inazioan.

13:15ean, Durundi Bari Dantza Taldea eta Lemoako Abesbatzaren ekitaldia San Inazio plazan.

18:00etan, umeentzako ikuskizuna *Txurrimurri eta Morritoston zirkuan* San Inazio plazan.

18:00etan, ugel txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

18:30ean, ugel txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

19:00etan, bola txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

19:30ean, bola txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

20:30ean, Aiko taldeak eskeinitako jantzaldi-erromeria Elizondon.

22:00etan, "Garsu" erre Elizondon.

ARRATIA

Edadekoak etxean jagoteko sistema probetan dagoz Arratian

Erredakzioa

BBK Auzolan Senior proiektuak baseri eremuetan bizi eta menpekotasunik ez dabenez edadeko personak zahartzarora euren etxean emon daien aukerak aztertuko ditu, telebista bidezko teknologiaren laguntzeagaz. BBKren Gizarte Ekin-tzak, Arratiako Udalen Mankomunitateak eta irabazi asmorik bako ITG Taldea izeneko erakundeak BBK Auzolan Senior proiektua garatzeko akordioa sinatu eben bagilan.

Arratiako mankomunitateak proiektu pilotuan parte hartuko dabenez edadeko personak bere gizarte zerbitzuetatik bideratuko ditu. 60 personak hartuko dabe parte sei hilabetez, ekimen pilotu honetan.

Etetik hainbat gauza egiteko aukerea eskeintzen deutse adinekoai proiektu honek: mantentze-eriketak, tensioa hartu, botikak noz hartu behar dabenez abisau, kea eta etxeko sute eta istripuak kontrolatu, mankomunitadetik jakinarazo dabenez arabera.

ITG Taldeak garatutako teknologia honegaz, erabiltzaileak euren telebisteari erantsitako argailu baten bitartez (telefono bidez konektetan dana) osasunari eta segurtasunari lotutako mezu personalizatuak jasoten ditue, jagokien eguneko orduetan medikazioa hartzeako zein gimnasia eriketak egin edo etxe barruan egon daitekean arazo bat identifiketako.

Teknologia barrien bidez edadeko personak etxean jagoteak, menpekotasuna saihesten dauala, bizi-kalitatea hobetuz dauala, eta gastu publikoa murrizten dala, frogatu gura dabe proiektuaren bultzatzaileak.

ARRATIA

Egonkortasun finantziariorako plana onartu dabe AUM-en

Erredakzioa

PNVk eta Bilduk, Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) gobernu-organoan dagozan alderdi biak, egonkortasun finantziariorako plana onartu eben bagilaren 27ko Osoko Bilkuran. Plana garagarriaren 1ean jari da indarrean helburu bigaz, "bizkortasun handiagora lortzeako manko-

munidadeko altxortegiko diru-sarreretan; eta, ordainketarako formula hobekuntza udalari, euren ekarpenai jagokienez, mankomunitateak jakinarazo dauanaren arabera.

Holan, udalen ordainketak, hiru hilerik behinekoak izate-tik, hilerokoak izatera pasauko dira eta "udalen batek arazo puntualak badaukaz ekarpena

egiteko orduan, mankomunitateari ordainketea egiteko modu desbardinak eskatu ahal izango deutzaz, edo, ostantzean, ordainketea zuzenean kudeatu ahal izango dau bankuen edo finantza-erakundeen bitartez".

Une honetan udalak ordaindu barik euki leikiezan zenbatekoai jagokienez, 2016ko garagarri-laren 15era arteko epea itxiko jakie egunean ipini daitezkan, eta zenbateko horreei ez jakie kosturik edo interesik aplikauko. Dimako Udalak 2017ra arteko epea eukiko dau.



Jai batzordeak eta
Lemoako Udalak

Gora San Inazioak!

JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

UBIDE

Saharako 18 umek Olalde aterpetxean pasauko dabe uda**Erredakzioa**

Ubideko Olalde aterpetxean 6 eta 12 urte bitarteko hamazortzi ume egongo dira bagilaren 26tik garagarilaren 26ra bitartean. Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe alkarrean Ubideko aterpetxea aukeratu dau umeak egonaldia egin daien gure artean.

Oporrak Bakean programeagaz Saharako umeak basamortuko

bero zakarretik igesi, gurera etorten dira udan, eta familietan izaten dabe egonaldia. "Lehenengo aldia da Bizkaian, aterpetxe baten geratzen dirala. Familiak hartzean dituen baino ume gehiago ekarteko modua izan da hau" azaldu deutso BEGITU Txus Martinez Euskal Trenbideetako Langileak alkarreko partaideak.

Martinez sano pozik egoan udalak eta ubidezarrak umeai egin deutseen harrera onagaitik.



Ume sahararrak Ubiden.

begitu **10** urte
arratia ubide zeberio

ARRATIA

Eraginkortasun Energetikorako Bulegoa**Erredakzioa**

Arratiako mankomunidadeak Eraginkortasun Energetikorako bulego bat sortu dau, udal instalazioetako konsumoak monitorizetako.

Europar araudiak derigortzen dau 1.000 m²-tik edo 70 kW-ko potentziatik gorako instalazioak kudeatzaile energetikoa aukeratu, eta bost urtean lehen mailako energiaren konsumoaren % 60ko aurrezki aurrekusten dauan E4+ Ekintza Plana onartu eta aplikatu, 238 milioe CO₂ tona murriztuko dira. Hori dala-eta, mankomunidadeak Eraginkortasun Energetikorako bulego bat sortu dau, udal instalazioetako konsumoak monitorizetako eta preminazko hobekuntzak behar dabezan konsumoak topetako.

Instalazioen inbentarioa eta ikuskaritza energetikoa izango dira diagnostikoaren oinarria, eta energia kudeatzeko software batek informazioa emongo dau denpora errealean.

Udaleri guztiak monitorizauko dira, eta gaur egun hilero-hilero elektrizidarearen arloan esparru publikoan sortzean diran 500 fakturak zentralizauko dira.

Sortuko diran aurrezkiak nabarmenak izango dira. Gaur egun, Arratiak argiztapen publikoko 4.627 argi daukaz. "Lehenengo diagnostikoaren ostean, kalkuluen arabera, argi horreek ordubete gixiago balezog biztuta, urtean 80.000 euro inguru aurreztuko litzateke" mankomunidadekoen arabera.

AREATZA

CO₂a % 51 murriztu gura dabe 2020rako, 2008 urtea erreferentzia hartuta**Erredakzioa**

Energia jasangarriaren alde lanean dabiz Areatzan. Izan be, bagilan Areatzako Tokiko Agenda 21ek TAK21eko zilarrezko saria jaso eban bere kalidadeagaitik. Udalsarea 21ek, Jasangarritasunerako Udalerrien Sareak, emon eutsan errekonozimendu hau Areatzari. Sariketa honetan 47 udalerrik hartu eben parte eta kalidade globala bost ezaugarri honeen arabera neurtu zan: estrategikoa, zeharkakoa, parte-hartzailea, operatiboa eta jasangarria.

Hilaren 2 eta 3an, energia jasangarriaren aldeko jardunaldi informatiboak egingo dira Areatzako frontoian. Egun bietan egitarau bardina izango da. Hamaiketan zabalduko dabe karpa informatiboa, ibilgailu hibridoaren erakusketea egongo da, bizikleta eta miniautoen zirkuitua eta eraikin iraunkorretara bisitaldioxoa egingo da. Gainera, gidatze eraginkorrerako ikastaroa be egongo da 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Alkateen Ituna

Energia Iraunkorren Europako Asteari hasiera emon eutsan bagilaren 18an Gasteizen, Alkateen Ituna jardunaldiak. Han egon ziran Areatzakoak "Alkateen Itunaren barruan dagoan Arratiako udaleri bakarra da Areatza eta Amezketagaz batera herri txikiena. Helburua 2020rako

energia % 20 murriztu eta energiaren % 20 iturri barriztagarrietatik lortzea baino harago joatea da. Ituna 2008an sinatu genduan eta urte hori hartzean dogu erreferentzia-tzat. Uste dogu, modu globalean hartuta % 51 murriztuko dogula energia konsumoa ordurako eta % 40 biztanleko. Akaso lar baikorrak gara, baina hori da asmoa" azaldu eutsan BEGITU Josu Basozabal Areatzako alkateak.

Areatzan, bigarren agendan dagoz eta Udalsarea 21ekoan arabera bide onetik doaz, sariagaz errekonozidu dabenaren arabera.

Auzokarrek 30 erabiltzaile

Auzokar martxan ipini zanetik hila eta erdi pasau danean, 30 lagunek emon dabe izena bazkide izateko. Denpora honetan "1.000 km., 140 erreserba ordu eta 300 eurotik gora fakturau doguz" dino Basozabalek.



Auzokar.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.

ARRATIA

Ermite inguruetan jai giroa

Erredakzinoa

San Pedro jaiak amaitzen da bagila, eta garagarriaren amaierako Saninazioak izan arte gurean ez da herriko jairik ospatzen. Dana dala, ermiten inguruko auzune askotan santuaren eguna ospatzen da, mezea eta osteko barauskarriagaz, beti be, trikitixearen soinuak lagunduta. Santomasak, sankristobalak, santamañeak, San Segismundo, madalenak, santiagoak eta saninazioak dira hile honetan ermita inguruetan ospatuko diren egunak. San Inazio egunean, tradizioak agindu legez, asko izango dira Gorbeira igoko diren arratiarrak Zeanuri, Ubide eta Areatzatik. BFAk autobusak doban ipinten ditu egun honetan Areatzatik Pagomakurreraino.

Lehenengoak hilaren 3an, Areatzako Ospitaloste inguruan Santo Tomas eguna ospatuko dabe mezea eta barauskarriagaz. Eta honeen ostean, sankristobalak Igorreko San Kristobal auzoan ospatuko dira. Hemen lau egunetarako egitaraua prestatu dabe.

Garagarriak 6, barikua
21:30ean, auzo afaria.

Garagarriak 7, zapatua
16:30ean, Mus txapelketa.
17:30ean, Tortilla eta makailao txapelketa.
19:30ean, tortillen aurkezpena.
20:00etan, makailaoen aurkezpena.
23:00etan, kontzertua eta ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

Garagarriak 8, domeka
08:00etan, mendi martxea.
13:00etan, ugel txapelketa.

Garagarriak 10, martitzena
12:00etan, mezea ermitan.

Santamañe, San Segismundo eta Madalenak

Hilaren 18an Santa Marina eta San Segismundo eguna da. Santa marinak edo santamañeak Artean eta Dimako Bargondian ospatzen dira. Bargondian Santa Marina eguna ospatuko da mezea eta barauskarriagaz eta Artean hilaren 22an izango da ospakizuna. San Segismundo Zeberioko Upon ospatzen da.

Hurrengo jaiak Madalenak dira, Ubideko Madalena auzunean eta Dimako Lamindaon ospatzen direnak. Ubiden, Madalena egunean, hilak 22, mezea egongo da ermitan, baina baita paella lehiaketa, sardina jana eta play-backa arrastian, beste gauza batzuen artean. Dimako Lamindaon, mezea 12:00etan izango da ermitan eta ostean barauskarria egongo da.

Santiagoak, Saninazioak eta Sanadrianak

Santiago eguna garagarriaren 25a da eta jai honek Lemoako Arrañon, Artean eta Dimako Santiago auzunean ospatzen dira. Arrañon mezea ermitan eta ostean barauskarria egongo da. Diman be, mezea ermitan eta gero barauskarria izango dabe Santiago auzuneak. Gauza bera Artean Santiago ermitan, baina hemen ospakizuna ez da izango Santiago egunean, hilaren 29an baino. Zeberioko Undurragan eta Dimako Arostegietan San Inazio ospatuko dabe. Han 13:00etan izango dabe mezea eta ondoren barauskarria. Egun honetan gainera, Gorbeia kurutzera igoteko ohitua dago eta Areatza, Ubide eta Zeanuritik abiatuko da jentea tradizioa beteteko.

Abuztuaren 1ean, San Adrian eguna da eta Zeberioko Argiñon ospatuko dabe.



Txistulariak auzo bateko jaietan.

ARRATIA

Genero indarkeriari aurre egiteko protokoloa onartu da eta urrietan sinatzea espero dau mankomunidadeak

Orain arte, Arratian ez da egon genero indarkeriari aurre egiteko politika koordinaturik.

Orain diagnostiko bat egin eta biktimen arretarako protokoloa onartu da. Baliabideak sortu, aholkaluritz tekniko kontratau eta indarkeria gainditzeko hainbat proiektu hasi dira lanean.



Andra batzuk autodefensa feminista ikastaro baten.

Erredakzinoa

Lehenengo lana egoerearen diagnostikoa eta arreta koordinetako protokoloa egitea izan da. Protokoloa maiatzaren 30ean onartu zan eta urrietan sinatzea espero dau mankomunidadeak.

Genero indarkeriari jagokonean, Ertzaintzaren datuen arabera, Arratian 2012an arrisku handiko lau kasu dagoz, arrisku ertaineko bat eta arrisku txikiagoko beste bi. Zazpi dira, beraz, Ertzaintzak jaso dituan genero indarkeria jasateko arriskuan dagozan andrak.

Genero indarkeriaren biktimen arreta koordinetako dokumentuak dira protokoloak, erakundeetako beharginak laguntza eske andra bat etorten jaienean zer egin eta nora jo jakiteko balio dabenak. Alde horretatik hutsuneak ditu onartu dan protokoloak Arratiako andra taldeen eretxian, ez dau-eta argi ixten zelan egingo dan koordinazio lan hori. Hori kontuan hartuta mankomunidadea saiatu da "dokumentua hobetuten". Parte hori argitu, aberastu eta herri bakoxtari egokitzeko proiektua egin daben Murgibekoakaz bilera bat izango dabe hilaren lehenengo astean. Ostean "ziriborro bat egingo dogu, konpromiso dokumentua, ekintzailei bialduko deutsegu eta urri lehenengoan sina-tzea espero dogu" dino Gorospek. Beste protokolo batzuk begiraturten be ibili dirala dino mankomunidadekoak gurera egokitzeko.

Dokumentua Arratiako andra taldeen arabera "nahasia da". "Nahastu egingo da arreta eta prebenzioa. Kaos handia dago" dino Noka talde

feministak. "Zehaztasun falta dauka protokoloak eta hortik dator bere horretan marxan jarri ezina" Areatzako Emakume Foroaren arabera.

Ez datoz bat kritika honek Murgibekoak proiektuaren koordinatzaileak. "Argi ikusten da dokumentuan zein dan ibilbidea. Urgentea bada, hau da andrearen bizitza arrisku handian bada, Ertzaintzara edo Osasun Zentrora eroan behar da. Erasoa ez bada lama izan, barriz, Gizarte Zerbitzuetara jo behar da" dino egileak.

Mankomunidadea lanean

Dokumentua hartuta, pausu batzuk emoten hasi dira mankomunidadean. Josune Gorospek jakinarazo ebanaren arabera, hau da egin dabena: Lehenengo pausua erreferentziako persona bi izentatzea izan da. Kudeaketa teknikorako Olaia Urkiza, eta administratiborako Alaitz Lezeaga izentatu dabez. "Eurek bultzatuko dabe sare lana eta eurak izango dira erreferentea, Mauleren aholkularitza teknikoaren laguntzeagaz" azaldu dau Gorospek.

Bigarren pausua honetan behar egiten daben beste erakundeakaz bideak zabaltzea izan da. "Hasi gara gestioak egiten batzeako Eudelegaz, BFAko Genero Indarkeriaren Behatokiagaz eta Eusko Jauriaritzako Genero Indarkeriaren Biktimari laguntzeko Zuzendaritzeagaz. Bialdu deutsegu protokoloa segmentu bat egiteko eta guk gura doguna da haeren aportazioak".

Protokoloak arreta mahaia proposatzen dau eta mahaian egon behar diran ekintzailei mahaian egongo diran ordezkarien izenak eskatutea

izan da mankomunidadeak egin dauan hirugarren pausua.

Urrietan, protokoloa sinatu, sensibilizazio kanpaina bat egin eta baliabideak ipiniko dira. Baliabideak jagokienean, udal libre daukiezan etxebizitzan barri eskatu deutsee mankomunidadekoak genero indarkeriaren biktimetarako eta beste emergentzia sozialai aurre egiteko.

"Protokolo honek ez dau balio"

Indarkeria mota hau feminismoari esker dago agenda politikoan eta talde feministak erreferente dira burruka honetan. Arratiako talde feminista guztiak sano inportantea jotzen dabe protokolo bat eukitea, biktimen arreta modu egoki eta eraginkorrean koordinetako eta burruka honetarako baliabideak ipinteko. "Protokolo hau egin izanak badauka alde positiboa: hori egiteagaz gai honeri garrantzia emoten jako, andra talde eta udalak parte hartzean dabiz azken fase honetan; konzienziarino eta bisibilizazioa lantzean dauz, eta izango dogun Arratiako protokoloaren hazia da. Jo daigun diskurtso ekintzetara eta lortu daigun Arratian egiturazko indarkeria gainditzeko benetako pausua emotea. Danok, emakumeok eta gizonak, irabaziko dogu" dino Areatzako Emakume Foroak. Baina protokolo hau, bere horretan, ezin dala marxan ipini daukan zehaztasun falteagaitik be adierazo dabe.

Arratiako Noka talde feministak be protokolo honeri "osoko emendakina" ipiniko leuskiola dino Idoia Eizmendi partaideak. "Baditu bere gauza onak. Biolentziaren inguruko definizioak dagoz eta hori gauza ona da, ze danok euki behar dogu hizkera komun bat. Baina orokorrean, ez dau balio behar egiteko. Hemen argitasuna falta da, existiduten ez diran baliabideetan oinarritzen da eta existiduten ez dan figura bat be agertuten da: biktimeari lagunduko deutsan akonpainantea".

Murgibeko Itxasne Martinez protokoloaren koordinatzaileak figura hori ez dala baliabide bat dino eta holan agertuten dala protokoloan "hori marxan ipini behar dan proiektua da. Bizkaiko Foru Aldundiak sortu gura dauan figura bat. Ikusten da inportantea dala eta alkarreaz bideratu ahal dala. Mankomunidadean hau aztertzeke asmoa daukie".

1936KO GERREAREN 75. URTEURRENA (II)

Begoña Gorritxo: "Gure etxea Euskadiren zatitxo bat zan Mar del Platan"

Agirre lehendakariaren Lemoatx errekueretako agindua eukan Gorritxo komandantea Argentinara erbesteratu zan gerrea amaitu ondoren. Mar del Platan ezkondu eta seme-alabak hazi zituan. Begoña Gorritxo alabea, Euskal Herrira bueltau zan 1976an, Argentinan estatu kolpea izan zanean. Komandantea, barriz, 1993an hil zan Argentinan. Igaz, Durangoko Azokan Begoña Gorritxok bere aitaren memorien liburua aurkeztu eban, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak argitaratuta. Beragaz egon da BEGITU, Lemoatxeko batailaren 75. urteurrenean.

Erredakzinoa**Gorritxo komandantea gerrea amaitutakoan erbesteratu zan, ezta?**

Bai. Iparralderantza joan zan, eta handik Buenos Airesera. Buenos Airesetik Txilera trenean eta han 1946ra arte egon zan. Gero Montevideora joan zan eta handik, barriz, Buenos Airesera. Buenos Airesen Ertzantzaren nagusia izandako Patxo Agirre egoan. Honek enpresa bat eukan eta esan eutsan aitari Mar del Platan lanean egon zala eta leku zoragarria iruditu jakola. Eta hara joan zan aita. Mar del Platako Denak-Bat Euskal Etxean ezagutu eban gure ama.

Zuen ama nongoa zan?

Iruñea aldekoa. Aitaren familia, barriz, Arratiakoa. Aitaren aita Lemoakoa zan, Bizente Gorritxo eta ama Obakoa (Dima). Juliana Bilbao eukan izena.

Zergaitik egoan zure amaren familia Mar del Platan? Hareek be gerratik iges eginda?

Ez. Hareek kolonoak ziran. Oso jente behargina. Azpiazu abade ezagunak ezkondu zituan nire gurasoak. Abade honek kartzen ardurea izan eban Euskadin. Nebea han jaio zan eta gero gurasoak Bilbora etorri ziran, ni hemen jaio nintzan, baina sei hilabete beranduago Mar del Platara itzuli ziran, errepresino frankistea zala eta, ama bildurtuta egoalako.

Zelangoa zan hango bizimodua?

Ni harro nago han hazi izanaz. Jatorri guztietako umeak ziran nire lagunak: italiar, judu, arabiar... jatorri guztietakoak. Eta hezkuntza publikoa oso ona zan. Mar del Plata uri zoragarria da, 43 km.ko kostaldea dauka. Nire auzoa hondartzatik hur egoan eta sasoi hareetan umeak kaletik ibili ahal ziran. Umeentzako lekua egoan. Plaza handi-handiak, zugatzak, eta, beraz, zomorroak... aspertzea ezinezkoa zan.

Euskal Herria presente egoan zure familiaren eguneroko bizimoduan ala ahaztuten

Aita hil zanean, bere memoriak irakurri nituan barriz eta "hau itzela da" esan neutsan neure buruari eta publiketea ebatzi neban

Gorritxo komandantearen

familia Arratiako zan:

aita, Bizente Gorritxo,

Lemoakoa eta ama,

Juliana Bilbao Obakoa

(Dima)

saiatu ziran zure gurasoak?

Gure etxea Mar del Platan egoan Euskal Herriaren zatitxo bat zan. Nik, gurasoai, "aita" eta "ama" esaten neutsen, nire lagun harridurarako. Txipiroiak jaten genduzan eta gure bizimodua guztiz euskalduna zan. Mar del Platara heltzean ziran euskaldun guztiak etorten ziran gurera bazkaien. Eusko Jauriaritzako nagusiak beren delegazioak be bai.

Patxo Gorritxok mantendu eban euskal politikeagazko hartu-emon?

Beti. Gure aita erreferente bat izan zan Argentinako euskaldunentzat eta hemengoentzat akzino gizona bere azken egunera arte. Baina urrun egoan eta distantziak errealidadea itxuraldatzen dau.

Aita hona etorten zanean sano harrera ona egiten eutsien baina era berean oso persona deserosoa zan. Hain deserosoa bere memoriak ez zirala igaz arte argitaratu.

Zu noz bueltau zinan hona?

Euskal Herrira etorri nintzan lehenengo aldia, bisitan izan zan 1972. urtean. Aitarentzat be, erbesteratu zanetik lehenengo aldia zan. Madriler a heldu ginanean, Madril bildurgarria iruditu jatan. Ha etsaiaren lurraldea zan, faxistaz beterik egoan eta bero agoantazina egiten eban. Trena hartu eta Euskal Herrirako bidean paisajea aldatzen joan zan. "Ikusiko dozu Euskadira heltzean garanean" inoan aitak. Euskadi Eldorado zan aitarentzat.

Baina heldu ginanean eta errekek ikustean, dezepzino handia izan eban. Izan be, errekek zikin-zikinak bitsaz beteta egoazan.

Zamudiora joan ginan gaua pasetera Pablo Beldarrain eta Mari Karmenen etxera. Hurrengo egunean, esnatutakoan, zabaldu neban lehioa eta postal baten barruan nengoala emoten eban, dana berde, baseritar bat idiakaz lanean... Gero, hemengo familia ezagutzera joan ginan. Sano esperientzia polita izan zan.

Gero, Argentinara bueltau



Begoña Gorritxo.

ginan eta unibersidadean hasi nintzan. Mutil bat ezagutu neban eta 1974. urtean ezkondu nintzan. Urte bi beranduago 1976ko martiaren 24an estatu kolpea izan zan. Militarrak etxean sartu ziran, lagun batzuk desagertu... Eta diktadureari igesi hona etorri ginan.

Zuen aita Argentinara joan zan hemengo diktaduratik igesi eta zu, bere alabea, hona etorri behar izan zinan hango diktaduratik igesi!

Bai. Holan da. Kainoiak izan dira gure familia mobiduteko arrazoiak, kar, kar.

Geratzeko etorri zinanean, gogorra izango zan. Arrotz sentidu zinan?

Bai. Sano gogorra izan zan. Ez eukan zerikusirik bisitan etorri

nintzanezagaz. Beheko pisuan lehengusina bat bizi zan, oso katolikoa eta persona gaiztoa. Jentea beti egoan besteak kritiketan, oso jente txarra iruditu jatan. Eta hemen inoz ez zan ezer ospatuten! Argentinan hazita hona etortea oso gogorra izan zan.

Berbetan hasten nintzanean ikusten zan ez nintzala hemengo eta oso modu desatseginetan tratetan ninduen. Gaur egun kanpoko jente asko dago, baina orduan ez, eta jentek "ez nintzala hemengo" ekarten eustan gogora denpora guztian.

Hemen geratu zinan eta igaz Durangoko Azokan zure aitaren memorien liburua aurkeztu zenuen. Zelakoa izan da liburu hori egiteko prozesua?



Kopautxoa Txilen. Gorritxo bigarrena eskoietik.

Argazkia: *No busque el exilio*.

Aitak memoriari bersino bi idatzi zituan. Bigarrenean testuinguru politikoa eta Argentinako bizimodua jasoten zituan. Baina bigarren hori ez zan poderea eukiaren gustukoa. Aita saiatu zan Eusko Jaurlaritzak publikatu eizan memoriok, baina ez eban lortu. Dirurik ez egoala esaten eutsien beti. Sabino Arana Fundazioan bardin, sukaldaritza liburuak argitaratzeko baegoan, baina ez honetarako.

Dokumentuak lapurtu eutsien eta hor amaitu jakon aitari EAJ-PNVagazko konfiantzea. Pena horregaz hil zan.

Hil zanean, irakurri nituan barriro aitaren memoriak, beste ikuspegi batetik. Eta neure buruari esan neutsan "hau itzela da, indar handikoa" eta beharriekin neutsan.

Zenbat denpora behar izan dozu testua atondu eta argitaratzeko moduan prestatzeko?

Asko. Urteak. Ez daukat ordenagailurik eta pobrea nazenez, ezta erosteko aukerarik be. Egunero-egunero Bidebarrieta liburutegira joaten nintzan hango ordenagailuak erabilteko. Ordu asko emon nituan.

Gero, aitak esaten zituan gauzak egiaztatu nebazan. Liburu baten aterako ziran eta ez neban gura akatsik egotea. Ahal izan dodan gutzia egiaztatu dot.

Eta Argentinatik, amaren etxetik, dokumentazio guztia ekarri neban. Dana. Fakturak eta guzti. **Eta argitaratzeko moduan egoanean Intxorta 1937 Kultur Elkartagaz ipini zinan**

Gorritxo komandantearen memoriak

Francisco Gorritxo Kirikiño batailoiairen komandantea *No busqué el exilio. Semblanzas de una vida* liburuak Lemoatxeko batailan burrukan egin eban komandantearen bizitza kontetan dau. Gerrea eta erbestealdia.

Bere alaba Begoña Gorritxok atondu Intxorta 1937 Kultur Elkarteak argitaratu eban 2011ko zemendian Eusko Jaurlaritzaren laguntzeagaz.

"Abertzale baten biografia dogu hau. Altxamentu frankistari aurre egin eta haren kontra burruka egin eban belaunaldikoa zan. Aurrez aurre bizi izan zituan berak jasotako gertakariak, eta, Euzko Gudarosteen instruktore lez lehenengo eta gudari lez geroago, besteak beste, Legutio, Elgeta, Azkonabieta, Bizkargi, Lemoatx eta Artxandako fronteetan bizi izandakoak kontetan deuskuz. Teniente izatetik Iparaldeko Ejerzitzoko Infanteriako IV. Brigadako buruzagia izatera pasau zan. Iparaldean, Txilen, Uruguain eta Argentinan erbesteratuta egon zan, baina ez eutsien burua makurrarazo –kontrakoa jazo zan–, eta bere urrineko Aberriaren alde, Euskadiren alde, burrukan jarraitu eban.

Askotan esan eutsien Memoriak argitaratuko eutsiezala, baina ez eben egin. Ez eban gura izan memoria horreek laburtzerik, eta hori izan leiteke ez argitaratzeko arrazoirik nagusia. Amaitu zituanetik 26 urte igaro dira, eta, beraren guraria betez, berak idatzirik moduan argitaratu dira".



hartu-emonetan ezta?

Zerbaist irakurrita neukan Intxortaren gainean, banekian zertan ebizan eta 2010eko Aste Santuan Elgetara joan nintzan. Herrian ez egoan inor, danak kanpoan ziran. Baina tabernan kafetxo bat hartzean nengoala etorri jatan bat "orduon Patxo Gorritxoren alabea zara" esanez. "Erakusketa bat gagoz montetan eta Kirikiño batailoia falta jaku" esan eustan. Nik horretan lagundu, eta azaldu neutsan liburuarena eta Intxortak publikatu dau. Aldez aurretik Pamiela eta Txalapartagaz kontaktuan ipinita nengoan eta baiezkoa emon eusten baina luzamentuetan

egoazan eta...

Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

Orain beste burruka baten nago. Gaixotasun arraro deitzean diran horreetako bat daukat eta Administrazioagaz burrukan nabil. Gure eskubideak, neureak, zapaltzen dabiz eta burrukan egin behar da, osasuna gauzaten dan eskubidea izan daiten eta burokrata batzuek ez daien oztopatu. Kontuz ibili behar dira orain olatu gainean dagozanak, olatu apurtu egiten da eta. Bizitza holango da, dana mobiduten da etenbarik. Eta toketan danean, toketan dan burruka egin behar da. Orain hauxe da nire batailea.

expert  **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

begitu **10** **urte**
arratia ubide zebierio

Zugaitik **BEGITU**ten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

 Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

 **Tfnoa: 94 631 80 04**

RAID

Xegiba-led Lenser-Zona Bike txapeldun Columbia ligako hirugarren proban

Erredakzioa

Podiumaren hiru mailetan arratiarrak egon ziran bagilaren 16an, Lizarran, Columbia Raid Abenturako hirugarren proban. Xegibako lehenengo taldeak, Gaizka Agirrek eta Egoitz Beobidek osotuten dabena, irabazi eban proba, eta bigarren postua Xegibako bigarren taldeak, Ibai Pinedo eta Xabi Iturriaga- lortu eban. Hirugarren postuan be egon zan Arratiakorik. Izan be Columbia Vidaraid taldea izan zan hirugarrena, eta bertan Bediako Juanan Alguacil dago.

Lizarran 62 talde batu ziran eguraldia lagun zala. Arratiako talde batzuk tartean: Xegiba-Led Lenser-Zona Bike talde biak, Artindu (Aitor Ormazabal eta Carlos Mangas), Antxintxiketan (Iñigo Ramos) eta Lamino Raid (Ibai Milikua eta Jokin Garriga) taldeak, hain zuzen be.

Eguzkitan galapan

Egin beharrekoa hau izan zan:

5km herriko orientazioa, galapan; 16km BTT eta kayakean; 11 km trekking gehi "ugelari tiro" eta rappel; eta 35 km BTTean. "Probea oso gogorra izan zan, bero handia egin ebalako, 40 gradu inguru eguzkitan. Eskerrak antolakea oso ona izan zala, eta hainbat puntutan ura eta horniketea ipini ebela" azaldu eutsan BEGURI Xabier Iturriaga Xegiba-Led Lenser-Zona Bike taldekoak.


Columbia Raid Abenturako hurrengo proba, urri lehenengoaren 8an izango da Zugaztietan.



Bost arratiar podiumean.

MENDIA

Ehunmilak Ultratrail lasterketan Zeberioako korrikalariak izango dira



Ibilbidea.

Erredakzioa

Austarri mendi taldeko Xabier Al-dazabal eta Iker Mendiolak hilaren 13an Ehunmilak Ultratrail mendi lasterketan hartuko dabe parte. European egiten dan lasterketarik

gogorrenetarikoa da hau 168 kilometro eta 11.500 metroko desnibel positiboa dauka eta.

Proba Gipuzkoan izango da, Beasaindik urtenda. Mendiz zeharkatuko ditu Goierri, Tolosaldea, Urola-kosta, Urola-Garaia

eta Debagoiena eskualdeak eta inguruko tontorrik altuenak igon behar izango ditue parte hartzaileak: Txindoki (1.346), Ganbo (1.402), Aizkorri (1.528), Erlo (1.026), Izaspi (967) eta Ernio (1.075), hain zuzen be.

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BISKARAZ ZEIN ERDARAZ

Beharrezko: A1, A, B1E, B

Lehendakari Agirre 31
Tlhoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@ovakol.net

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxeko produktokoak

- Txerriak
- Odolestak
- Baskantzak
- Salbitzak
- Harburgesak

Arratiako produktokoak

- Baserriak
- Odolestak
- Baserri arrautzak
- Txerriak
- Harriak
- Geroak fruta eta herriak

Herrikoak lekuak
Lehendakari Agirre 31
94 673 40 28

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejatetxe@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83

Dia %

PEDRO AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIXMI KOPIDENDA JAONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE
BIZKAIA
Tlf: 94 612 02 41
Fax: 94 612 02 46
kixmikopi@gmail.com

Umeen moda 0-20 urte

- Botoli
- Ray
- Aranda
- Akur
- Guisabier
- Aranzaga
- Gandoak
- Ite
- Hassan

sein

Lehendakari Agirre, 29 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA

Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajiurierra 1 Behea 48330 Lemoa
Tlhoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
kultur elkarriz

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industriaidea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

AKEITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industriaidea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DEGU KONSTURTAN
ONDARIN BEGIZENEN
ASBURGUTAN

Sabino Arana, 3 Tlhoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSTRIAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net


Pinturas Anatia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

ZOZKETEAK

Athleticen kamiseta bat zozketatu eban AMEK



SOCIACIO

Hektor Athleticceko kamiseteagaz.

Erredakzinoa

Igorreko jaiak amaituteko, Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME) erromeria antolatu eban Jokaldi taldeagaz eta txokolata

emon eban, tartean Athleticceko jokalaria sinatutako kamiseta bat zozketatu eban. Saria 0039 zenbakia eukan Joseba Rodriguezentzat izan zan. Argazkian bere anaia Hektor saria jasoten.

PELOTEA

Pelota jaialdia jaietan

Erredakzinoa

Igorreko Eskupelota Eskolako pelotariak torneoak jokatu eban jaietan. Umeak joko ona erakutsi eban eta Esparta eta Arauzo izan ziran Igorreko torneoan txapel-dunak helduen kategorian. Honek, Imanol Agirreren kontrako desafioan neurtu ziran gero, eta Arteakoak irabazi eban. Hurrengo ikasturtean, Imanol Agirre, Izei Gomezen laguntzeagaz, izango da entrenatzaile Igorreko Eskupelota Eskolan.



Igorreko Eskupelota Eskolako umeak.

SEGA

Hileon Euskal Herriko eta Bizkaiko sega txapelketak jokatuko dira

Erredakzinoa

Bagilaren 30ean, Erratzun (Nafarroa) jokatuko ziran Euskal Herriko sega txapelketaren finalerdiak. Bertan Jon Intxaurre zeanuriztarra izan zan Arratiako ordezkari bakarra eta ez zan finalerako sailkatu. Bizkaiko txapelketea hilaren 28an izango da Basagurenen. Han Jon Intxaurre zeanuriztarra eta Jaime Atxa aretazatarra saiatuko dira txapela Arratiara ekarten.

Zapki segalari neurtu ziran Erratzun multzo bitan. Zeanuriztarra

bigarrenean egon zan Juan Joxe Lizaso, Angel Maguregi eta Jexumari Ormaetxeagaz batera. Multzo honetan Lizaso izan zan onena eta bigarren Ormaetxea sailkatu zan. Honek biak eta beste multzoan sailkatutako Alkorta eta Kafanka izango dira finalean.

Finala hilaren 15ean jokatuko da Leitzan eguerdiko 12:00etan.

Almitza alkarteko Euskal Herriko hilaren 22an

Federazinoko Euskal Herriko txapelketeaz gainera, Almitza Seg

Elkarteak be antolatuten dau beste txapelketa bat. Hau Zaldibin (Gipuzkoa) izango da hilaren 22an eta han Jaime Atxa eta Igor, Ander, Pabi eta Irati Astondoak hartuko dabe parte.



Jon Intxaurre segan.

ellauri
HOTELA
Naturazko sutsu
Landa Turismoa
Enpresa Zerbiztuak
Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

habia arkitektura monika agirre zamakona
Tif. 690 18 16 42
Proiektuak - Obra zuzendaritza
Zaharberritzeak - Igogailuak
ITE - informeak
Aholkularitza teknikoak
Jarduera proiektuak
Administrazio tramiteak
Zure neurria egindako proiektu eta aurrekontuak
www.habia-arkitektura.com

BICIS
Arratiarren denda
Tel. 94 631 32 28
jeanm@arratiaren.es
Ongarri Martiri 10/11, 12

RUGBY TABERNA
•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak
ARRATIKO ESKORRAK
arratiko.zekorrek@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbiztuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdia, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
819 736 616
48143 Igorre Bikoa

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa
Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Arteza
Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
Aretzakoko Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Aretzak
Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima
Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

AURRESKU TXAPELKETEA

Igorreko Aurresku Txapelketan txapela defendatuko dau Bilbaok

IGORREKO XI'en AURRESKU TXAPELKETA
XI. CAMPEONATO DE AURRESKU DE IGORRE



Antolatzailea:
Igorreko Udala

TOKIA - LUGAR
Igorreko Kultur Etxean
Kultur Etxea de Igorre

EGUNA - DIA
UZTAILA 7a JULIO

ORDUA - HORA
18:00 etan

LAGUNTZAILEAK:

Kartela.

Erredakzioa

Garagarilaren 7an, udalak antolatuta, Igorreko XI. Aurresku Txapelketa jokatu da Igorreko Kultur Etxean, arrastiko seiretan. Bertan 13 aurrekulari neurtuko dira, Igorreko bi tartean, Julen Bilbao eta Asier Etxezarraga.

Julen Bilbao igorreztarra igazko

txapelduna da eta txapela defendatzeko egingo dau jantzan. Aurten be txapela lortzeako aukerak baditu Bilbaok, baina jentea asko preperetan dala eta gaxa dala dino. "Faborito argirik ez dago. Igorreko txapelketak denpora gitxian izen handia hartu dau eta jentea ondo preperetan da" azaldu deutso BEGITURI Julen Bilbao aurrekulariak.

MUSIKEA

Esti eta Olatz Euskal Herriko txapeldunak bigarrenez

Erredakzioa

Orain dala lau urte jokatu zan aurreko edizinoan legez, Esti eta Olatz zeanuriztarrak irabazi dabe Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuten dauan Euskal Herriko Kantu Txapelketa. Euskal Herri osoko bakarlariak, bikoteak eta taldeak Donostian lehiatu ziran bagilaren 16an eta "kalidazeko kanta eta kantari ugari" entzun zituen Donostiako Antzoki Zaharrera hurbildu ziran kantazaleak, antolatzaileen arabera.

Maila altuagoa izan dala aurten- goa dinoe zeanuriztarrak "estu eta larri ibili gara oraingoan irabazteko. Sariak be aldatu egin dira: le-

hen hiru ziran eta orain bi" azaldu deutso BEGITURI Olatz Goikoetxeak. Bikoteak "Gazter behatuz" kanteagaz irabazi eban txapela, eta bikoteetan bigarren Ermuako Leire eta Iker Elustondok egin eban, aurreko edizinoan zeanuriztarrak kantautako "Haizea" abestiagaz.

Bakarlarien txapela Baxenafarroako Maitena Monacok eroan eban, eta taldeena Hiru Soinu Lapurdiko taldeak.

Iparraldekoen estiloko kantak

Arratian musika zaletasun handia badago be, Arratiako partaidetzea txikiagoa izan da aurten, aurreko edizinoan baino. Izan be, orduan

Arratiako Autzin taldeak hartu eban parte bigarren eginez taldeen artean eta Arratiako beste kantari batzuek be parte hartu eban. Aurten, barriz, zeanuriztarrak izan dira Arratiako ordezkari bakarrak kantu txapelketan. "Arratian rock talde asko dagoz baina kanta estilo honetarako Iparraldean dago zaletasunik handiena" dino Esti Olibaresek. Bakarka, *a capella*, eta eurek sortutako kantak izaten dira Iparraldekoen kanten ezaugarriak.

Esti eta Olatzek kantautako "Gazter behatuz" kantea be, Iparraldekoa da eta han oso ezaguna. Kanta honeri Bizkaiko txapelketan sari berezia emon eutsien "kanta tradizionala eta antxinakoa izateagaitik".

Diskoak etxon beharko dau

Maila altua izan eta Euskal Herri osoko bikoteakaz neurtu arren, sariak ez dau berमतuten diskorik aterako danik "kontzertuak bai izaten doguz, txapelketa honeri esker. Izan be, Kantuzale Elkarteak kontzertuak antolatuten ditu Gabon partean eta deitu egiten deuskue" dino Olatz Goikoetxeak. "Lau urte honeetan, kontzertu ugari izan doguz Araba eta Bizkaian" gehitu dau Esti Olibaresek.

Diskoak egiteko asmoa daukie musikariak baina eurek sortutako kantakaz egin gura dabe. "Bospasei daukaguz eta hamaika inguru behar doguz" dino Olibaresek.



Olatz Goikoetxea eta Esti Olibares.

ASESORIA
Gorbeialde
 Juridikea · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
 Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
 Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
 E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
 Elexalde 4
 Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinikea
 Fisioterapia Zentroa
 Pontzi Zabala 1. Galdakao
 Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ARA OTZ
 Landetxea O Jabetzen!

Herriko Plaza 2. et. 48142 Artea - Bizkaia www.aramotoz.com

Kendall Languages
 - Matrikulea zabalik 2012-2013 ikasturtea
 - Ikasturtearen hasierara irailaren 17an izango da
 Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 75 48 · www.kendall-languages.com

GALANTA
 Barmetik jarzteko
 Zugandik sano hurbil
 Lehendakari Agirre 25, Igorre
 Telefonoa: 94 631 90 08

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
 Estazioa, 15
 48330 LEMOA (Bizkaia)
 Telfo. 631 33 30 - 631 31 31
 Fax 631 36 15

belagorri
 mediku naturista
 argaltzeko terapia
 kosmetika naturala
 elikagai biologikoak
 zeliakontzat elikagaiek
 estetiziana

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
 94 600 21 12 - 94 600 87 56
 L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
 94 631 14 39

bbk

HERRIKO BENTA
 HOSTAL
 HERRIKO PLAZA
 48142 ARTEA (Bizkaia)
 Tel. 94 631 72 56

Ametzola Landetxea
 Ametzola 1-1
 48499 Zeberio
 629 429 870
 www.ametzola.net



IKERKETEIA

Ikasle bik praktikak egingo ditue genoma eta VIH ikertzen

Erredakzioa

Maialen Gonzalez eta Iera Amuriza igorretarrak CIBIR Errioxako ikerketa biomediko zentruan praktikak egingo ditue garagarriaren 4tik 24ra, bata genomaren eta bestea VIHren ikerketetan. Izan be, ikerketa zentruko buruak

hiru plaza eskeini eutsen Arratia Institutuko ikasleai udan praktikak egiteko. CIBIR ikerketa zentruak Logroñoko ospitaleagaz eta beste enpresa batzuk kolaboretan dau. VIH, Alzheimer eta minbizia lango gaixotasunak eta giza genoma ikertzen dira bertan.

Zentrura bisitea egin ostean,

zentruko buruak hiru plaza eskeini eutsen Arratia Institutuko ikasleai. Kimikako irakasleak aukera hau bere kimikako bederatzi ikasleai eskeini eutsen eta ikasle bi aurkeztu ziran joateko prest. Maialen Gonzalezek Erizaintza ikasteko asmoa dauka eta Iera Amurizak Farmazia. Praktika honeetatik "etorkizunerako balia garria izango jakien zerbaist ikastea espero dabe eta lan munduan esperientzia apur bat eskuratzea" Ana Begoña Sancho Arratia Institutuko kimika irakaslearen esanetan.

AEK

AEK-ko barnetegi ibiltariari harrerea egin eutsan Areatzako Euskera Batzordeak

Erredakzioa

Mintzapraktika egin bitartean Euskal Herriko lekuri ederrenak eza-gutzeko AEK-k barnetegi ibiltariak antolatuten ditu. Bagilaren 30ean Areatzatik hasi ziran AEK-koak eta Areatzako Euskera Batzordeak antolatuta hainbat aratirek harrerea egin eutseen ibiltariak. Danak

alkarregaz, herrian zehar bisita gidatua egin ondoren Gorbeiarantza abiatu ziran.

Bide osoa ez eben oinez egin, Pagomakurrera autoz joan ziran. Kurutzean, mokautxo bat jan eta agur esan eutseen AEK-koai, honek euren ibilbidea jarraitu behar eben eta, 15 egunean Hiru Erregeen Mahaira heldu arte.

LARRE ALDAKETEIA

Baserritik Gorbeiarako bidea egin eban Etxebarriak artaldeagaz

Jon Urutxurtu

Urtero legez, aurten be Enrike Etxebarria eta bere artaldeak Elexartza baserritik Arrabako landarako bidea bete eben garagarriaren 1ean. Eta ekintza honetan parte hartzeako aukerea gura dauan guztiarentzat zabalik egoten danez, berrogeita



Enrike laguntzaileakaz.

hamar personak lagundu eutsien Enikeri Gorbeiarako ibilbidean.

Larre-aldaketarako eguraldi aproposa izan eben, lainotuta baina euri barik, eta 12:15erako Arrabako landara heldu ziran ardiak eta laguntzaileak. Hurrengo hilabetean Lekanda hatxaren oinarrian daukan txobolan egongo da Enrike, eta bere zereginak esnea batzea eta gaztaigintza izango dira, garagarriaren 31k, San Inazio egunak, ardiak antzutu eta udako mendiko egonaldia amaitu dala iragarri arte.



AEK-ko barnetegi ibiltariakoak Areatzan.

JANTZEA

Roser Carrés Montull: "Nik isiltasuna bihurtzen dot jantza eta musika ikustarazo"

Erredakzioa

Zeberioko auzune altuenetako baten gagoz, Zeberioan. San Juan eguna da eta berez leku mitologikoa dan inguru honek xarma berezia hartzean dau. Ilunabarrean, jaiotzez katalana dan Roser Carrés Montull jantzariagaz egin dogu topo. Eguzkiaren azken argi izpiak suaren garrak ordeztan dituen bitartean hasten gara berbaz.

Zergaitik etorri ziran Zeberiora biziten?

Zeberioaneko Ametzola landa etxea ezagutu neban eta berehala maitemindu nintzan leku berezi honetaz. Handik gitxira jakin neban Zeberioaneko etxea alokatzeko egoala eta biritan pentsau barik hartu genduan.

Jantzari profesionala zara?

Zazpi urte neukazala hasi nebazan balet klasikoko ikasketak eta hamabost urte neukazan arte jarraitu neban Bartzelonan. Ondoren, Londresko Royal Academy of Dance-n amaitu nebazan jantzari ikasketok, eta bertan balet klasikoa irakasteko ikasketak be egin nebazan. Orain UNESCOren Nazioarteko Jantza Kontseiluaren zertifikazioa lortzean nabil.

Non egiten dozu behar?

Castro Urdialesko Udal Jantza Eskolea zabaldu neban orain dala urte batzuk eta sasoi haretan haxe izan zan nire etxea. Baina orain balet eskola bi daukadaz, bata Bilbon eta bestea Areetan. Azken urte bi honeetan balet klasiko irakasleak prestatzen dodaz Royal Academy eskatuta.

Jantzatik atera daiteke bizimodua?

Bizimodua atera bai, aberastu ez, ordea. Sano lan gogorra da, etenbarik eguneratu eta punta-puntan egon behar da eta.

Ze balio erantsi dauka jantzak zuretzat?

Jantza ez da kirola, artea baizik. Jantza prestakuntza fisiko handian oinarritzen da, baina benetan sensibildadean datza. Musikea ikusteko modu bat da.

Baina musikea ikusi daiteke?

Gor batek ezin dau musikea entzun baina baletaren bitartez musikea ikusi daike. Jantzan egiten dodanean, jantzak energiagaz betetzen nau. Niretzat baleta adibidez, soinu edo isiltasuna imaginetea da. Imaginazio horreek publikoari helarazoten deusadaz. Zentzu horretan isiltasuna jantza bihurtzen dot eta musikea ikustarazo.

Jantzearen filosofia emoten dau...

Eta horixe da. Nire ustez jantzak aberastasun espirituala sortarazoten deusku, bai jantzariagaz baita ikusleentzat. Jantza gorputza eta buruaren arteko bakea da, adierazoteko eta biziteko modu bat. Erabat konbenziduta nago jantzak maila guztietako kultura eta albarbizita garatzen lagunduten dauala.

Zein da inoz esan deusuen jantzearen gaineko gauzarik politena?

Hamazazpi urtegar Bartzelonan Zisnearen Heriotzea jantzatu nebanean, jarraitzaile batek zera esan eutan: "I un cigne no es més que un angel amb figura humana" (Eta zisne bat ez da persona itxurea daukan aingeru bat baino).

Jantzan izakerea osotuten dala dinozu, jantza irakastea zer da zuretzat?

Hogeitamar urte daroadaz baleta irakasten. Nire eskutik pasau dan ume bakotxean neure nortasunaren zati txiker bat erein dot. Baina ez dot jantza irakasten umeak jantzariak izan daitezkan kultura ikasi dagien baino. Gura dodana zera da: umeak edozein lanbide

ikasteaz gainera kultura nahikoa izatea San Petersburgoko baletaz gozatzeko.

Lau urtetik gorako umeai emoten deusuz eskolak. Zer irakasten deusuz?

Umeak, espresinoaren bitartez publikora zelan heldu ikasi behar dabe. Helburu hau lortzeako disziplina gradu altu bat behar da. Ume gehienak, berez, disziplinari alergia deusie eta, horregaitik, engainetan dodaz. Nire klaseak dibertigarriak dira, batez be. Izan be, umeak gustora ez badagoz ez dira barriro klasea etorriko. Jantza klasikoa irakasteko sekretua umeak disziplina konturatu barik ikasteen datza.

Azaldu behar deusazu hori! Zelan irakasten jako ikasle bateri bera ikasgaiak konturatu barik?

Adibidez, ume talde bateri agintzen badeusazu oina modu berezi baten mobiduteko, ez zenduke asma-tuko seguruenik. Helburu horregaz

Mari Errauskine ipuinaz baliatzen naz: kontetan deusset zelan lotzean dituan zapatak Mari Errauskinek, eta, askoz hobeto funtzionetan dau.

Uda honetan umeentzako jantza klasikoa eskeiniko dozu Zeberion. Norentzat da eta zelan egingo da matrikulea?

Zeberioko udaletxeak eskeini deusku gela bat eskola zaharrean. Izena udaletxean emon behar da. Baldintza bi dagoz: umeak, gitxienez, lau urte izan behar ditu eta, derri-gor, jantza ikasteko gogoia izan behar dau. Izan be, proba epealdian klasean ondo pasetan ez dauana libre dago, ezelango konpromiso barik, alde egiteko. Kasu honetan ez dogu ezer kobretan. Balet klasikoa ikasteko adinaren arabera taldeak antolatzen doguz. Salbuespena azken taldea da non zortzi urtekoak eta zaharragoak batzean doguzan. Uste dot, Arratian, balet klasikoa eskeintzen dauan eskola bakarra dala gurea.



Roser baleta irakasten.

AGENDEA

**GARAGARRILAK 3
AREATZA**

Ergiaren egunak.

12:00etan, Santo Tomas ermitan mezea. Osteen, barauskarria eta trikitilariak.

BEDIA

Hilaren 15era arte, udalak antolatutako Txiki Txokoa eta udaleku irekiak.

LEMOA

Hilaren 13ra arte, 2012-2013 ikasturterako eskulan ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

Jaietako kuadrilen afarian edo herri bazkarian parte hartzeako txartelak hilaren 16a baino lehen hartu behar dira udaletxean.

**GARAGARRILAK 5
DIMA**

Udalekuak hilaren 18ra arte.

**GARAGARRILAK 6
IGORRE**

San Kristobal jaiak San Kristobal auzunean. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**GARAGARRILAK 7
IGORRE**

09:00etan Kultur Etxeko plazan bizikletak konpontzeko tailerra.

18:00etan, Igorreko XI. Aurreku Txapelketa. Kultur Etxean.

**GARAGARRILAK 8
IGORRE**

08:30ean, Intxaurbizkar Kultur Elkarteak antolatuta, San Kristobaleko IX. Mendi Martxea.

UBIDE

Amexier mendi Taldeak Mota (1.315 m) Sobron abentura parkea. Umeentzako.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldea Sierra Salvada-Corobel.

**GARAGARRILAK 13
ARANTZAZU**

18:00etan, Bildu Kultur Batzordeak

antolatuta, Sendabedarrak jardunaldia. Gorka Menendezegaz sendabedarrak batu eta ukenduak eta edabeak egin. Udaleko erabilera anitzeko lokalean.

**GARAGARRILAK 14
AREATZA**

23:00etan, Javier Mañon umoristea Bixer tabernan.

**GARAGARRILAK 16
BEDIA**

Hilaren 21era arte, udalak antolatutako Uda Gaztea.

**GARAGARRILAK 18
DIMA**

Santa Marina ospatuko da Bargondian.

**GARAGARRILAK 20
LEMOA**

Hilaren 22ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako urteera. Pont d'Espagne Petit Vignemale (3.023 m). Baysellance aterpea Vignemale (3.298 m).

**GARAGARRILAK 22
ARTEA**

Santamañe ospatuko da Santa Marina ermitan. Mezea eta barauskarria.

DIMA

Madalenak ospatuko dira Lamindaon.

UBIDE

Madalenak ospatuten dira: mezea, sardina jana, umeentzako jolasak, paella lehiaketak, play-backa...

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta Aibalabera, buzoia ipinten laguntzeko.

**GARAGARRILAK 24
LEMOA**

17:30ean, futbito txapelketearen finalurreokoak.

**GARAGARRILAK 25
DIMA**

Santiago jaiak Santiago auzunean.

**GARAGARRILAK 27
LEMOA**

19:00etan, jaietako txupina udaletxeko plazan. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**GARAGARRILAK 29
ARTEA**

Santiago jaiak Santiago ermitan.

**GARAGARRILAK 31
AREATZA**

Gorbeiko kurutzera igoera.

DIMA

San Inazio jaiak Arostegietan.

UBIDE

Amexier Mendi Taldeak antolatuta Gorbeia urteera (1.481 m.).

**Betagarri Lemoako jaietan hilaren 28an**

Lemoako jaietan Betagarri Gasteizko taldeak kontzertua eskeiniko dau hilaren 28an, gaueko 23:30ean Elizondan. Talde honek arrakasta handia dauka Euskal Herrian eta Euskal Herriatik kanpo –Alemanian, Austrian, Suitzan eta Hego Ameriketara, batez be- eta leku guztietan lortzean dau jentea jantzen ipintea.

Taldea 1992an sortu zan eta bederatziko disko atera ditu. Ska-rock, rap, reggae, rantxerak... musikan zein hizkuntzan mestizajea aldarrikatzen dabe gazteiztarak. Martxea ez da faltauko Lemoan jaietako zapatu gauean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behea (Igorre).

DANERIK**ETXEA ALOKATU GURA DOGU**

Alokatzan dan baseri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baseri edo etxea gura dogun bi bikote gara. 685 707 176 Eider.

TXAKURRA GALDU DA

Txakurra baseritik eskapadau da katea apurtuta eta falta handia asmetan dogu. Topau ezkerro, ipini kontaktuan BEGITUguz.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

**ETXEKO BEHARRAK ETA
ZAINTZAK**

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kotxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

ZERBITZARI BILA

Igorreko Axular Herriko Tabernan zerbitzaria behar da. Interesdunak emon izena barran edo 94 673 70 92 telefonoan.

LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku biki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Aiko taldeak emondako
Oinak kantuz CD bana.**Beinat Anzola (Igorre)
Xabier Iturriaga (Areatza)

2


Txakolin kajatxoa.

Matxalen Legarreta (Artea)

Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,zozketetan
sartuko zara.BEGITUK 10
urte eta
ehundaka
lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Azukerea bota. 2.- Lehenengo letrea. Hegazti bat. Fosforoa. 3.- Niobia. Kataboxi. 4.- Kiroletan irabazteko erabilten dana. 5.- Zirkonioa. Uranioa. Atadian. 6.- Amaiera. 7.- Gerrea. 8.- Bat erromatar. Ezezko. Oxigenoa. 9.- Kejea, aiene.

GOITIK BEHERA

1.- Animalien koipe. 2.- Laugarren bokala. Itsasontzi. Bokala. 3.- Persona izenordaina. Letra bat. Bits, lerd. 4.- Amaitubako. 5.- Leku. Bokala. Osmioa. 6.- Azken bokala. Mitologia grekoan, Dedaloren semea. Letra bat. 7.- Bananea.



Topau Asiako zazpi uriren izenak.

A	R	T	O	K	A	N	I	A	D
T	I	O	B	O	K	A	M	N	I
E	Z	I	U	G	O	Z	A	U	X
L	I	K	R	A	I	R	N	O	A
I	S	O	G	L	E	M	I	D	L
F	A	T	O	H	A	U	L	A	B
O	D	A	E	K	A	F	A	S	O
T	E	T	I	A	R	X	L	E	S
M	A	U	Z	E	N	I	K	E	P
A	T	R	O	B	A	R	U	T	A
N	A	I	R	A	K	L	A	Z	U
O	J	E	R	U	S	A	L	E	M
T	E	B	E	R	U	T	I	K	I
A	D	E	G	I	Z	E	J	O	R
K	A	I	K	U	A	R	I	Z	E

AKI MI KO

Zorrozki lo



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
**94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com



ARRATIA AUTOESKOLA
karnela eskolaraz zain erdiaraz

Agine Lehendakaria 11 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unabuz@euskainet.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igone
94 631 52 26

Los Chopos
neurriera egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Niguel) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

begitu
amata ubide zerbeto

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00



FOTOKOPIAK - PAPERBENDA

E. Agirre, 7.
48120 Igoren (Bizkaia) Tfnoa: 94 622 64 78

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia



**Bar Restaurante
Montero**

Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

TAPAKUBOS

"Taldean egotearen parterik onena kontzertuak emotea da"

Tapakubos Dimako lau mutil gaztek osotuten daben rock taldea da. Orain dala gitxi BEGITU 10 urte abestian parte hartu eben, beste talde batzuek batera. Taldearen ensaio baten egon da BEGITU, musikari honek hobeto ezagutzeko asmoz.

Clara Luja

Noz hasi zinen musika taldeagaz?

Gitxi gorabehera 2010eko udan hasi ginan. Kontzertu baten egon ginan eta asko gustau jakun han egoan giroa. Ebatzi genduan geuk be egingo genduala rock talde bat, nahiz eta orduan gutako batzuek ez genduan instrumenturik jotzen.

Zelango musikea egiten dau Tapakubosek?

Punk motako rock-a da gehien bat. Eskorbuto taldea hartzean dogu erreferentziatzen eta abestien letretan gure inguruko gaiak jorratzen doguz.

Zein da kanta barri bat egiteko prozesua?

Zati desbardinatan egiten dogu kantea: lehenengo bateriako parte egiten dogu, gero bajua gehitzean deusagu, gitarrea eta azkenik letrea eta abeslariaren parteak. Hasieran ez genkian zelan egin

kanta barriak, zelan hasi, baina denporeagaz ikasten joan gara.

Aldaketarik egon da taldean hasi zinenetik?

Bai, hiru gitarrajole joan dira, arrazoi desbardinakaitik.

Zein da talde baten egotearen alderik onena zuontzat?

Batez be, kontzertuak jotzen pase-tan doguzan momentu onak. Oso esperientzia ona da kontzertuak emotea.

Eta txarrena?

Taldekideakaz dagozan arazoak. Batzuetan "pikeak" dagoz gure artean, baina konpontzen doguz. Beste alde batetik, oso gazteak izanda batzuek ez dabe taldea serio hartzean eta ensaietako-eta batzuetan gatxa da disziplina apur bat izatea.

BEGITU 10 urte abestian parte hartu dozue. Zelango esperientzia izan zan ha?

Sano ona. Cristina Ruizek deitu euskun ea gura genduan proiektuan parte hartu itauntzen eta baietz esan geuntsan. Letrea eta dana jada eginda egoan, guk bakarrik interpretatu egin genduan. Berezia izan zan guretzat abesti bat grabatu genduan lehen aldia izan zalako. Mungian egin genduan, hango Magic Box estudioan.

Etorkizunerako planik?

Oraindino ez daukagu plan askorik. Udan taldekide batzuk oporetan dagozalako. Dana dala, taldeagaz jarraitu gura dogu, ensaietan eta.



Instrumentuak

jo aurretik ebatzi

genduan talde bat

egitea

BEGITU 10 urte abestian

parte hartzea berezia

izan zan, kanta bat

grabetan genduan

lehenengo aldia zalako



arratiako merkatarien elkartea

www.arratia-merkatariaK.com



OPORRAK IJUUUU!!!

IGORREN EROSI